

## KULTURA ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA BERRIKUNTZARENA (FECYT) SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA - 2022

### **Dirulaguntzen ezaugarriak:**

Estatuan egindako jardueren zati bat finantzatu ahal izango da, baldin eta jarduera horien azken helburua bada kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntzarena sustatzea, zentzu zabalean hartuta.

Jarduera horiek egon beharko dira proiektuen kategoria hauetakoren batean sartuta:

- a) Zientzia eta teknologiaren gizarte komunikazioari buruzko proiektuak
- b) UCC+I atalen jardueren urteko programa
- c) Zientzia azokak
- d) Proiektu bereziak:
  - 1. Herritarren zientzia
  - 2. Berrikuntzaren kultura
  - 3. Artea, zientzia eta teknologia

\* Informazio gehiago nahi izanez gero, irakurri deialdiko 6. artikulua.

### **Proiektuen iraupena:**

Dirulaguntza jasoko duen jarduera eramango da aurrera kategoria bakoitzerako ezarritako epearen barruan, hau da, 2023ko uztailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean, eta 2023an zehar ekingo zaio jarduerari.

### **Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:**

- a. Ikertzaile nagusiek UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izan beharko dute eskaera aurkeztu den unean eta proiektua aurrera eramaten den bitartean.
- b. Ikertaldeko kideek UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izan beharko dute eskaera aurkezten den unean.
- c. UPV/EHUkoak ez diren ikertzaileek beren erakundeen baimena izan beharko dute proiektuan parte hartzeko. Baimen hori, gainerako dokumentazioarekin batera, helbide honetara bidali beharko da: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

**GARRANTZITSUA:** ikertaldeko kideren bati amaitzen baldin bazaio UPV/EHUrekin duen lotura taldeak dirulaguntza duen bitartean, **ezingo du** gasturik egotzi egoera horrek dirauen artean. Ikertzaile nagusiak Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko dizkio proiektua aurrera eramaten ari diren bitartean gertatzen diren bajak.

### **Aurrekontua prestatzeko jarraibideak**

Deialdi honen baitan emandako dirulaguntzen bidez finantzatu ahal izango da, gehienera, aurkeztutako proiektuaren aurrekontu osoaren % 60. Eskaera bakoitzak, gehien dela, 150.000 euro jaso ahal izango ditu. Dirulaguntzetarako gutzira egongo den zenbatekoa: 4.500.000€

#### **GARRANTZITSUA:**

Ikertzaile nagusiak finantziario propioa izan beharko du aurkeztutako eskaeraren helburu diren jardueren kostu guztiaren % 40rako, gutxienez. Horregatik, "I. eranskinean" adierazi beharko ditu bere finantza iturri propioak.

Organikoren baten arduradunak ez badu hartzen parte eskaeran, arduradun horrek organikoa erabiltzeko baimena eman beharko du idatzi batean, I. eranskinarekin batera bidaliko dena.

**Dirulaguntza izan dezaketen kontzeptuak** (zerikusi zuzena izan beharko dute dirulaguntza jasoko duen jarduerarekin)

	<b>FINANTZATUKO DIREN GASTUAK</b>	<b>FINANTZATUKO EZ DIREN GASTUAK</b>
<b>MATERIAL INBENTARIAGARRIA</b>		Material inbentariagarriaren erosketak edo amortizazioa
<b>LANGILEAK</b>	Bakar-bakarrik dirulaguntza jasoko duen jarduera egingo duten langileen kontratazioa (beren beregi adierazi beharko da lan kontratuan)	Ikertaldeko kideek ezin izango dute ordainketarik jaso nominaren bidez
<b>MATERIAL SUNTSIKORRA</b>	Material suntsikorra, hornigaiak eta antzeko produktuak	Ez da finantzatu bulegoko materialik eta informatikarako kontsumigarriak
<b>MUGIKORTASUN KOSTUAK</b>	Jardueran parte hartuko duten langileen bidaiak, dietak, ostatua eta jatorduak	
<b>AHOLKULARITZA GASTUAK, HEZKUNTZA JARDUERAK PRESTATZEKO GASTUAK, ZABALKUNDE ETA ARGITALPEN GASTUAK</b>	Baldin eta finantzatu diren jardueraren funtsezko zati ez badira	
<b>ERAKUNDEKO ZERBITZU NAGUSIEN ERABILERA KOSTUAK</b>	Baldin eta tarifa publikoak badituzte	
<b>AUDITORIA GASTUAK</b>	Gehienez ere 1.200 euro emandako dirulaguntza bakoitzeko	
<b>BESTE BATZUK</b>	Aurreko ataletan jasota ez daudenak	
<b>ZEHARKAKO</b>		Ez dira finantzatu daitezkeen

KOSTUAK		gastuak
---------	--	---------

### **Eskaerak aurkezteko era eta epea:**

Ikertzaile nagusiak behin betiko eskaera aplikazioan aurkezteko epea **2023ko urtarrilaren 25ean** amaituko da, **eguerdiko 13:00etan** (Espainia penintsularreko ordua).

Eskaera bide elektronikotik aurkeztuko da, plataforma honen bidez: <https://www.convocatoria.fecyt.es/Publico/index.aspx>. Ezingo da aurkeztu eskaririk beste bideren bat erabilia, webgunean besterik adierazi ezean.

### **UPV/EHUko tramitea:**

<b>2023ko urtarrilaren 9a</b> (egun hori barne)	<b>I. eranskina bidaltzea, proposatutako langileen zerrendarekin, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan.</b> Eranskina <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbide elektronikora bidali beharko da, gaiaren arloan "FECYT deialdia" idatzita. Proiektuaren finantzatzaile ere izango den organikoaren arduraduna bada proiektuko ikertaldean parte hartzen ez duen ikertzaile bat, ikertzaile horren baimena beharko da funtsak erabili ahal izateko.  Aipatutako dokumentazioa nahitaez bidali beharko da, UPV/EHUko legezko ordezkariak balidatu dezan.
<b>2023ko urtarrilaren 25a, 13:00ak arte</b>	<b>IKERTZAILEEK ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA</b>  <b>Behin eskaera aurkeztuta, dokumentu guztien kopia bidaliko dira <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera, artxibatuta gera daitezten.</b>
<b>2023ko urtarrilaren 25a, 13:00ak arte</b>	Ikerketaren arloko errektoreordetzak elektronikoki balidatzeko epearen amaiera.

### **UPV/EHUren datuak:**

Hauek dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren erakundearen (UPV/EHU) datuak:

- **Legezko ordezkaria: Inmaculada Arostegui Madariaga**
- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
**IFK:** Q4818001B
- **Egoitza soziala:** Sarriena auzoa, z.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Harremanetarako helbide elektronikoa:** [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)
- **Harremanetarako telefonoa:** 94 601 80 08

**Harremanetarako:**

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	FECYT
946018008 <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a>	<a href="mailto:convocatoria@fecyt.es">convocatoria@fecyt.es</a>

**Informazio gehiago:**

<https://www.convocatoria.fecyt.es/Publico/Bases/Bases.aspx>